

APIRILEAN, INTERNET BIDEZKO XAKE ESKOLAK

(2021eko apirilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an)

Ordutegia:

19:45-21:00.

Izena ematea:

Nafarroako Xake Federakundearen posta elektronikoan: "info@fnajedrez.com"

Parte hartzeko federatua egon beharra dago.

Ordainketa egin izanaren agiria erantsi beharra dago.

Izena emateko epea:

2021eko apirilaren 6ko 10:00ak arte.

Salneurria:

5 euro.

Izena emateko epea itxi baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, bigarren xake eskolan hasi beharko ditu ikasleak saioak.

Nafarroako Xake Federakundearen kontu korrontea:

- Sabadell Bankuan, ES04 0081 4363 09 0001031904.

Maisua:

Malagan jaiotako Ernesto Fernandez Romero Maisu Handia. Maila guztietako jokalaririk federatuentzat izanen dira saioak.

Jokalaririk moduan bere ibilbidea.

- Andaluziako txapelduna maila guztietan (infantil, kadete, gazte mailan, adin guztietakoa eta taldeka).
- 16 urtez azpiko Espainiako kadete txapelduna, 1997. urtean.
- 21 urtez azpiko Espainiako txapeldunordea (Gazte maila), 2003an.
- Espainia ordezkatu du zazpi aldiz Europako eta Munduko Txapelketetan. Bere emaitzarik onena 18 urtez azpiko Munduko Txapelketan, banaka, 2000. urtean: 15. postuan.
- Maisu Handiaren titulua 2018an eskuratu zuen (xakean titulu gorena).

Entrenatzaile moduan bere ibilbidea.

- Etorkizun handiko jokalaria gazteentzako teknifikazio ikastaro ugari eman ditu 2005. urtetik, Malagako, Andaluziako eta Espainiako Xake Federazioetan.
- Titulazio hauek ditu: FIDE TRAINER, FEDA monitorea gorena eta CDSko I. Mailako kirol monitorea.
- Laguntzaile/entrenatzailea izan da oso jokalaria onekin. Adibidez, Francisco Vallejo (Espainiako Estatuko onena) edo Lance Henderson (historiako Maisu Handirik gazteena Espainiako Estatuan). Baita hainbat kategoriatako Espainiako txapeldunekin, mutilekin zein neskekin.

IKASTAROAREN GAIA: ERREGIARI ERASOA, BERE KOKAPENAREN ARABERA.

2021-04-07: Erregea erdian.

- Endrokea ekidin.
- Erasoa f7 lauki ahulari.
- Posizioa irekitzea (hausturak, sakrifizioak).
- Erregea aterarazi.
- Iheserako laukiak kontrolatzea.

2021-04-14: Erregea endrokatua (fianchetto).

- Fianchettoko alfila desagertaraztea.
- Lauki ahulak aprobetxatzea.
- Haustura puntuak kontuan izatea (h5/f5).
- Balizko sakrifizio f5 laukian.
- Gazteluko zutabearen erasoa.

2021-04-21: Erregea endrokatua (egitura naturala).

Peoien eraketa: (f7/g7/h7).

- Endrokea defendatzen duen zaldia desagerraraztea.
- Endrokea suntsitzeko sakrifizioak egitea (h7/g7).
- Euskarri laukia kontuan hartzea (g5).
- Gaztelua hirugarren lerrora igotzea.

Peoien eraketa: (f7/g7/h6).

- Endrokea defendatzen duen zaldia desagerraraztea.
- Haustura laukiak kontuan hartzea (g5).
- Diagonalean balizko ahultasunak antzematea (b1-h7).
- Sakrifizioa h6 laukian kontuan hartzea.

2021-04-28: Aurkako endrokeak.

- Erasora lehenengoa iristea (erasoen lasterketa).
- Haustura laukiak dauden antzematea.
- Irismen handiko piezak erabiltzea.
- Denborak irabaztea.

2021-03-24.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.